

Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko GRALa idazteko estilo gida.

Ondokoa izango da azalaren eta orrien formatua: UNE A4 210x297 mm. Dokumentuaren lehen orri gisa joango da azala.

Defentsa eskatzeko unean, ADDI plataformara ondokoak igoko dira, bereizitako dokumentuetan:

1. UPV/EHUko erakunde gordailuan (ADDI) argitaratzeko baimena, hautatutako lanen artean badago.
2. Partekatutako jabego intelektualaren adierazpenaren onarpena, akordioa dagoenean egilearen eta zuzendarien artean (hautazkoa).
3. UPV/EHUko Etika Batzordearen baimen-dokumentua, beharrezkoa izanez gero.

Lana 5 orrikoa (10 alde) izango da gutxienez; eta 25 orrikoa (50 alde) gehienez,

Zenbaketa horretatik kanpo geratuko dira honako hauek:

- Eranskinak. I. Eranskineko II. Eranskineko zenbaki korrelatiboa izango dute.
- Dokumentuaren aurreko orriak (azala, aurkibidea, eskerrak, laburpena, hitzaurrea). Azala izan ezik, orriei zenbaki erromatarrak jarriko zaizkie, letra xehez.

GUTXIENAKO	GEHIENAKO
5 orri	25 orri
10 alde	50 alde

Tipografia eta estilo arauak

- Argibide hauek jarraitzea ahalbidetzen duen testu prozesadoreren bat erabiliko dela aurreikusi da; horrela ez bada, gertuen dagoen irtenbidea aplikatuko da.
- **12 puntuko Times New Roman** letra tipoa erabiliko da, Tauletan eta Irudien Oinetan ezik.
- Orriak bi aldetatik idatziko dira.
- Ez da goibururik edo orri oinik onartuko.
- Orrien zenbakiak eskuin goialdean joango dira eta Sarreratik edo lehen kapitulutik hasiko dira zenbatzen.
- Aurretiko orrialde, hitzaurre, eta abarretan zenbaki erromatarrak erabiliko dira.
- Kodeketa dezimala erabiliko da kapitulu eta ataletarako.

- Kapituluetakozko izenburuak (digitu bateko kodea) ezker marjinetatik idatziko dira, letra larriz eta lodiz. Letra tipoaren tamaina 14 puntukoa izango da.
- Ataletako izenburuak (bi digitu) ezker marjinetatik idatziko dira, letra larriz eta lodiz. Letra tipoaren tamaina 12 puntukoa izango da.
- Ataletako izenburuak (hiru digitu) ezker marjinetatik idatziko dira, letra xehez eta lodiz. Letra tipoaren tamaina 12 puntukoa izango da.
- Beste izenburu guztiak ezker marjinetatik idatziko dira, letra xehez. Letra tipoaren tamaina 12 puntukoa izango da.

Izenburuen adibideak:

1. SARRERA

1.1. MEDIKUNTZA MODERNOA

1.1.1. Diagnostikorako irizpideak

1.1.1.1. Pazienteen pronostikoa

Ondokoak izango dira idazteko marjinak:

- Ezkerra: 40 mm
- Eskuina: 25 mm
- Goialdean: 30 mm
- Behealdean: 30 mm
- Ondokoak izango dira lerroarteak:
 - Lerroen artean: 1.5eko lerroarte
 - Paragrafoen artean: 6 puntuko tarte aurretik.
 - Kapitulu izenburu eta paragrafo baten artean: 12 puntuko tarte aurretik.
 - Atal izenburu eta paragrafo baten artean: 12 puntuko tarte aurretik.
 - Atalen artean: 12 puntuko tarte aurretik.
- Ez da koskarik erabiliko paragrafoak hasterakoan.
- Orrialdien orientazioa bertikala izango da. Taula eta Irudien kasuan, aurkezpen etzanak onartuko dira. Eskuinalderantz irakurtzeko biratuko dira beti.
- Sailkapenen eta azpisailkapenen kasuan, azpisailkapenaren hasiera aurreko paragrafoaren lehen hizkiaren azpian kokatuko da.

Irudiak eta Taulak

Balore numerikoak irakurlearentzat garrantzitsuak izan badaitezke, taula bat da egokiena. Aitzitik, garrantzitsuena datuen joera edo beraien arteko aldea erakustea bada, grafiko bat erabiltzea hobea. Argazkiak sartzeko beharra egon daiteke ere. Grafikoak zein argazkiak iruditzat joko dira. Irudiak sekuentzialki zenbakituko dira, txostenean aipatuak izan diren ordena berdinean. Eta berdin taulen kasuan. Beren aipamenetik gertu egon beharko dute, baina testuaren fluxua gehiegi moztu gabe.

Irudiak eta taulak aipatzerakoan, izen propioak bezalaxe tratatuko dira; hau da, ondokoa jarriko da: **1. Irudia edo 1. Taula** (lodiz eta lehen hizkia larria delarik). Taulak zuri-beltzean egingo dira derrigorrez. Tarte nahikoa utzi beharko da (2 lerro zuri) taulak eta irudiak testutik bereizteko. Paper etzana erabiliz gero irudiak edo taulak jartzeko, erraztasun osoz ikusi ahalko dira papera erlojuaren orratzen noranzkoan 90° biratuz gero.

Taulak eta irudietako oinak, 10 puntuko **Arial Narrow** letra tipoa erabiliz idatziko dira. Taulen goiburuek zein irudietako oinek, beren edukia azalduko duen izenburu bat eramango beharko dute. Izenburu hori letra lodiz idatziko da. Bi kasuetan, halaber, informazio nahikoa jasoko da, bertan aurkeztutakoa testura jotzeko beharrik gabe uler dezan irakurleak.

Ikus ondoko adibidea:

“After 24 h of reaction, more than 80% of *n*-propanol was transacylated (**Table 2**). However, 99% of lactide conversion was observed, indifferently of the stereochemistry of the lactide used.

Table 2. Enzyme catalyzed ring-opening polymerization of cyclic esters: monomer, conversion and data from SEC analysis. Reaction was performed with 1 wt% of enzyme to monomer and at 80°C in all cases.

Monomer	Enzyme	Solvent	Time (h)	Conversion (%)	M_n^a	M_w/M_n^a
β -butyrolactone	PhaZ _{GK13}	In bulk	24	98	1500	1.52
	Novozyme 435			8	760	1.05
L-Lactide	PhaZ _{GK13}	Toluene (0.6 mL)	24	98	900	1.03
	Novozyme 435			0	—	—
D-Lactide	PhaZ _{GK13}	Toluene (0.6 mL)	24	93.4	900	1.01
	Novozyme 435			14.3	nd ^b	nd ^b

^aMolecular weight (M_n) and molecular weight distribution (M_w/M_n) determined by SEC using narrow distributed poly(methyl methacrylate) standards and chloroform as eluent. ^bnd: not determined due to nearly quantitative recovery of monomer from reactions.

Irudietarako adibidea:

As shown in **Figure 1**, the molecular mass of the purified enzyme from *S. roseolus* SL3, determined by SDS-PAGE analysis, was approximately 28 kDa.



Figure 1. SDS-PAGE analysis of the purified mcl-PHA depolymerase from *S. roseolus* SL3. Proteins were separated in a homogeneous 12% (w/v) acrylamide gel and revealed by Coomassie brilliant Blue R-250. Molecular mass markers (lane M), purified enzyme (lane 1). The N-terminal amino acid sequence of the enzyme, in one letter code, was determined by Edman degradation.

Ingeniaritzaren arloan erabiltzen ohi den grafikoa x-y delakoa da (bi eskala linealekin). Arreta handiz aukeratu beharko dira aldagai independentea eta mendeko aldagaiak. Ardatzak aldagaien izena erabiliz etiketatuko dira eta aldagaiaren izenaren atzean unitateak jaso beharko dira: "Coste de fabricación (\$/año)", esaterako. Irudiaren oinak bere azpian joan beharko du, irudiaren zenbakiaren ondo-ondoan. Deskribatzailea izan behar du; ez da ardatzetako etiketak errepikatuz mugatuko. Ondokoa, adibidez, ondo legoke: **Figura 3. Determinación del diámetro óptimo de la tubería.** Baina honako hau, aitzitik, ez litzateke onargarria izango: **Figura 3. Costes anualizados vs diámetro de tubería.**

Hona hemen txostenetan erabiltzen ohi diren beste zenbait irudi mota: prozesuetako fluxu diagramak, hodian eta tresnen diagramak, tarta diagramak, histogramak, plangintza diagramak, etab. Bakoitzak bere zenbakia izan beharko du, testuan aipatua izango da eta izenbururen bat izan beharko du. Taulek ere zenbakia eraman beharko dute, bai eta izenburu deskribatzaile bat ere goiburuan. Zutabe bakoitzak (lehenak ezik, zenbait kasutan) bere etiketa eta unitateak izan beharko ditu. Zenbakiak dezimal kopuru egokia izan beharko dute (2tik 4ra) eta beren dezimalarekin lerrokatuta egon beharko dute.

Ekuazioak

Ekuazioek zentratuta egon beharko dute eta zenbakiak eskuinera doituta egon beharko dute, parentesi artean. Adibidez:

$$S_1 = \left[\frac{\partial(\text{VAN})}{\partial x_1} \right]_{x_2, x_3, \dots, x_n} \quad (1)$$

Irudiak eta taulak bezalaxe, beren zenbakia erabiliz aipatuko dira ekuazioak; adibidez: Ekuazioa (4). Irudiak eta taulak ez bezala, txostenean agertu ondoren baino ez dira aipatuko ekuazioak.

Bibliografia

Idatzi guztietan, oinarri tekniko edo informazio edo inspirazio iturri izan diren informazio iturri guztien erreferentzia jaso beharra dago. Egindako erreferentzia guztiek Bibliografia atalean bilduta egon beharko dute (eta alderantziz). Erreferentzia guztiak osorik egingo dira. Ez da komeni argitaratu gabe dauden emaitzak edo komunikazio pertsonalak jasotzea erreferentzien zerrendan.

Aipu bibliografikoen formatua:

Erreferentzia bibliografikoak egiteko: "Vancouver" sistema (gida, honekin batera doan PDFan). Kontuan izan GRALeke erreferentzia bibliografiko guztiek estilo bera izan beharko dutela.

Azken dokumentua

Aurkeztu beharreko lanaren memoria osatzen duten atal guztiak (balizko eranskinak barne) pdf formatuko artxibo bakar batean igoko dira plataformara.